



Lectura fácil

Zer egin Zentro batean apuntatzeko



**Dibertsitate funtzionala duten pertsonen
Arretarako Zentroen Oinarrizko Estatutua**



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



© Lectura fácil Europa
Logo: Inclusion Europe
Más información en:
www.easy-to-read.eu

Araba, 2021

“Dibertsitate funtzionala dutenentzako Arabako Lurralde Historikoko eguneko Egoitza Arretako Zentroen eta Zentro Okupazionalen Oinarrizko Estatutua “ren III. tituluaren (Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zentroetan sartzea) egokitzapena erraz irakurtzeko, irakurketa errazari buruzko UNE 153101:2018 EX arauarekin bat etorritz.

Argitaratzailea:

Arabako Foru Aldundia

Erraz irakurtzeko egokitzapena:

Irene Vera de la Fuente

Egokitzapenaren balidatzaileak:

Saray Guaza Chamorro

Gregorio Cintas Jiménez

Óscar Pueyo González

Testuaren diseinua Irene Vera de la Fuenteren diseinuan oinarritzen da

Aurkibidea

Aurkezpena.....	4
Zer egin zentro batean apuntatzeko?	6
Zentroarekiko betebeharrak	8
Zentroaren arauak	9
Egokitzapen aldia.....	11
Zentroan sartuz gero.....	12
Legeak	13

Aurkezpena

Arabako Foru Aldundia
Arabako gobernu organoa da.

Aldundiak idatzi du **Dibertsitate funtzionala** dutenentzako Arabako Lurralde Historikoko Arretako Zentroak arautzen dituen Oinarrizko **Estatutua**.

Zentroen estatutuaren helburuak honako hauek dira:

- Zentroak erabiltzen dituzten pertsonen eta haietan ari diren profesionalen eskubideen eta betebeharren berri ematea
- Azaltzea nola antolatu behar diren **zentroak**.

Arabako Foru Aldundik erraz irakurtzeko moduko 5 gida prestatu ditu estatutu hau azaltzeko.

Estatutua

dokumentu ofiziala da, esaten duena nola antolatu behar den zerbitzu edo zentroa eta nola behar duten bertakoek. Hemendik aurrera Zentroen Estatutua esango diogu.

Dibertsitate funtzionala

desgaitasuna esateko beste modu bat da.

Hemendik aurrera **Zentroak** aipatzen direnean, dibertsitate funtzionala duten pertsonen arretarako eguneko zentroeiz, zentro okupazionaliez eta egoitza zentroeiz ariko gara.

Hona:

- 1. gida: Zentro motak eta beren balioak.
- 2. gida: Erabiltzaileen eta profesionalen eskubideak eta betebeharrak.
- 3.gida: Zer egin zentro batean apuntatzeko.
- 4.gida: Zer egin zentroan parte hartzeko.
- 5.gida: Parte hartzeko
Batzorderako Hauteskundeak

Hau 3. gida da,
Zentro batean apuntatzeko zer egin behar den
eta hango zerbitzuak erabiltzeko
zer arau bete behar den azaltzen da.

Zer egin zentro batean apuntatzeko

Zentro batean apuntatzeko
honako urrats hauek
egin behar izaten dira:

- 1.** Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak erabakitzen du pertsonak zentroaren erabiltzea izateko ezarritako baldintzak betetzen dituen ala ez. Horretarako eskura duen informazio guztia baliatzen du: txostenak, elkarrizketak.
- 2.** Zentroaren erabiltzailea izateko baldintzak betez gero, informazio zehatzagoa eska daiteke eta zentroa bisitatu daiteke behin betiko apuntatu baino lehen.
- 3.** Apuntatzerik baduzu, Zentroak **Fiskaltzari** jakinaraziko dio apuntatu zarela

Fiskaltza justizia organoa da; adingabeen eta mendekotasuna duten pertsonen eskubideak defendatzen ditu eta horiek arreta egokia jasotzeko behar den guztia egiten du.

4. Zentroaren zuzendaritzak eta erabiltzaileak zer laguntza beharko duen aztertu behar dute

Ondoren erabiltzaileak hautatutako laguntza pertsonari jakinarazten zaio zer erabaki den.

5. Erabiltzaileak ez badauka ahaiderik ez legezko ordezkariarik,

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eta **Fiskaltzak** haren eskubideak

bermatzeko

eta arreta egokia ziurtatzeko

behar diren **neurriak**

hartu behar dituzte

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea Arabako Foru Aldundiaren organikoa da; mendekotasuna edo dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zerbitzuak kudeatzen ditu.

Neurriak helburu jakin bat lortzeko ekintzak eta erabakiak dira.

Zentroarekiko betebeharrak

Zentro baten erabiltzailea izateko honako **arau** hauek bete behar dira:

- Zentrora joan behar da **ebazpenean** adierazten diren egunean eta orduan.

Arrazoi sendorik gabe joan ezean, zentroko plaza galtzen da.

- Zentro eta bertako zerbitzuak erabiltzeko, legeak ezarritako prezioa ordaindu behar da.

- Egoitza zentro bat erabili nahi duena zentroa dagoen udalerrian **erroldatu** behar da

Erroldatu ezean, plaza galtzen da.

- Zentroaren arauak bete behar dira.

Araua esparru jakin bateko legea da. Esate baterako, zentroko arauak

Ebazpena dokumentu ofiziala da, pertsona bat zentro batean sar daitekeen edo ez zehazten duena.

Erraldotzea da Administrazioari modu ofizialean jakinaraztea non dagoen bizilekua. Etxebizitza aldatuz gero, helbide berria jakinarazi behar zaio

Zentroaren arauak

Zentroak bere arauen berri eman behar du erraz ulertzeko moduan.

Horretarako, honako material hauek eman behar dizkie erabiltzaileei:

- Zentroko elkarbizitzarako arauen kopia bat eta arauak erraz ulertzeko moduan azaltzen dituen liburuxka.
- Estatutu honen kopia.

Zentro bakoitzak bere arautegia eduki behar du, hau da, bete beharreko arau guztiak biltzen dituen dokumentu ofiziala.

Arautegian honako hauek azaldu behar dira:

- Zentroari buruzko oinarrizko datuak: non dagoen, nola jarri harremanetan zuzendariekin, etab.

- Zentroan apuntatzeko eta bertako zerbitzuak erabiltzeko arauak.
Adibidez: prezioa, erabiltzaileen betebeharrak.
- Nola hartzen duten parte erabiltzaileek Zentroaren antolamenduan.
Adibidez: nola aurkezten diren kexak.
- Elkarbizitza arauak.
Adibidez: nola erabili behar diren zentroko esparruak eta nolakoak izan behar diren harremanak profesionalekin.

Egokitzapen aldia

Egokitzapen aldiak
zentroan ematen diren
lehen 3 hilak hartzen ditu.

Aldi horretan erabiltzaileek zentroan
integratzeko eta bertara moldatzeko
laguntza jasotzen dute.

Norbait moldatzen ez bada,
zentroaren zuzendariekin
hitz egin dezake
elkarrizketa bat egiteko.

Elkarrizketan erreferentziazko pertsona,
legezko ordezkaria
edo konfiantzazko pertsona ere
egon daiteke.

Elkarrizketan bildutako informazioarekin
Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak erabakiko du
pertsona hori zentroan gelditu behar den
edo beste zentro batera joan behar den.

Zentroan sartuz gero

Zentroak aldi batez
edo behin betiko
(mugaegunik gabe)
erabil daitezke.

Zentroarekiko betebeharrak
betetzen ez dituztenek
plaza gal dezakete.

Galdu ondoren, kasu batzuetan
berriz ere eskuratu daiteke.
Adibidez, ordaindu gabeko hiletako kopuruak
ordaindu edo falta diren agiriak
aurkeztuz gero.

Legeriak ezartzen du
zer kasutan
berreskuratu daitekeen galdutako plaza
eta zer kasutan
galtzen den behin betiko.

Legeak

Atak honetan gida honekin lotutako lege nagusiak ageri dira

Ez dago legeok zertan irakurri gida ulertzeko; gainera, ez dira erraz ulertzeko modukoak. Nolanahi ere, informazio gehiago nahi izanez gero, begiratu daitezke.

Espainia:

- 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, ezintasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu bategina onartzen duena.
- 1/2000 Legea, urtarrilaren 7koa, prozedura zibilarena.

Euskal Autonomia Erkidegoa:

- Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretua, Uztailaren 22koa, arautzen duen mendetasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasatako arriskua aitortzeko prozedura, bai eta, baldintza horiek emanaz gero, Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere.

